

DURANGALDEAN MAILA ANITZEKO GOBERNANTZA EREDUA GARATZEKO DEFINIZIOA ETA LAGUNTZA

Posted on 04/03/2020 by Naider

Category: [Albisteak](#)



Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako Bizkaia Orekan prozesuaren barruan kokatzen da, lurralde oreka sendotzeko eta eskualde bakoitzaren aukerak aprobetxatzen dituen dimentsio anitzeko garapena sustatzeko. Lanak Durangaldeko lurralde garapenaren inguruan oinarri partekatuak izatea bilatzen du, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren eskualde mailako ekintzak gidatzea ahalbidetuko dutenak eta Mankomunitateari eta Eskualde osoari maila anitzeko gobernantzaren esparru estrategiko bat eskaintzea.

Proiektu honi edo lotutako beste batzuei buruz gehiago jakin nahi baduzu, egin klik [hemen](#) edo jarri gurekin harremanetan.

